

LAN KOADERNOA

LEHEN MAILAKO HEZKUNTZAKO

2. ZIKLOA

KOLORETAKO Tximeletak

Isabel Planas
Maru Escobedo
Raül Jiménez



LAN KOADERNOA

ZIKLO ERTAINEKO
KOADERNOA



Koloretako
tximeletak

Sortaren zuzendaritza: Eva Quintana
Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

Autoretzaren koordinazioa: Raquel León
Ekoizpenaren koordinazioa: Elisa Sarsanedas

Argazkiak: Javier Bauluz, Joan Palomes, Rosa Pons, Gervasio Sánchez, UNICEF,
INTERMÓN OXFAM-en agiritegia

Azalaren diseinua: Javier Valmaseda

Barrukoak: Lluís Torres

Koaderno honetako jarduerak "Gaur egungo munduko gatazkak" izeneko gaia ikasi duten ikasleek egin dituzte, UB (Universidad de Barcelona) unibertsitateko Irakasleen Formakuntzarako Fakultatean. Lan hau Anna Bastida Gaur egungo Historian Doktore eta Gizarte Zientzien Didaktikako irakasleak zuzendu du.

1. argitaldia: 2001eko uztaila

© Autoretza: Isabel Planas, Maru Escobedo, Raül Jiménez

© Apaingarriak: Àngel Sauret

© INTERMÓN OXFAM

Roger de Llúria, 15. 08010 Bartzelona

Tel 93 482 07 00. Faxe 93 482 07 07. E-posta: intermon@intermon.org

ISBN: 84-8452-075-7

Lege-gordailua: B. 33.677-2001

Inprimaketa: Hurope s.l.

Espanian inprimatua

"Copyrightaren" titularren baimenik gabe, erabat debakaturik dago obra hau ugaltzea, osorik edo partzialki, ezein modu edo prozeduraren bidez.

Klororik gabeko paperean inprimatua.

AURKIBIDEA

- 1 EA ZER DAKIZUN!
- 2 MARRAZ DEZAGUNGERRA, MARRAZ DEZAGUNBAKEA
- 3 GATAZKA DAUKAGU GELAN!
- 4 KATUA ETA SAGUA
- 5 NORK EGITEN DU GERRA?
- 6 BALANTZA
- 7 MUNDUAN GERRAK DAUDE
- 8 BIZITZA PRIBATUAK
- 9 ROBERTO, ANGOLAKO MUTIKO BAT
- 10 EZAGUT DEZAGUN ANGOLA
- 11 BAKEAREN ALDEKO GARRASI BAT
- 12 ARMEN ORDEZ, ETORKIZUNA
- 13 BI AHUNTZEN ISTORIOA
- 14 ZER IKASI DUGU?



Idatzi



Irudi-
bilduma



Marraztu



Pentsatu



Liburu
erraldoia

1

EA ZER DAKIZUN!

-Kaixo! Nola zaudete?

Roberto da nire izena, 10 urte dauzkat eta Angolako herrixka batean bizi naiz. Gustukoa dut eskolara joatea, baina gustukoen-gustukoena lagunekin jolas egitea eta lasterketarako autoak. Gaur, eskolan, ondorengo galdera hauek egin dizkigute. Ea zer erantzungo zenukeen zuk?




Zer da gerra?

Zein adjektibo erabiliko zenituzke gerra deskribatzeko?

Zure ustez, gauza bera al dira gatazka eta gerra?





Gerrarik ez dagoenean, bakea al dago beti?

Zure ustez, saihestezina al da gerra?

Zer gertatzen da gerraren ondoren?

Zer dakizu armei buruz?
Balio al dute zerbaiteko?

Zure ustez, seguruago al dago herri bat,
gero eta arma gehiago edukiz?

Ezagutzen al duzu gaur egungo gatazka
edota gerraren bat? Izenda itzazu.

2

MARRAZ DEZAGUN GERRA, MARRAZ DEZAGUN BAKEA



Marraz ezazu, zure ustez gerra zer den

A large, empty, rounded rectangular box with a light blue border, intended for writing an answer to the question above.




Nire ustez, zer esan nahi du gerrak?

Four horizontal lines provided for writing an answer to the question above.




Marraz ezazu, zure ustez bakea zer den

A large, empty, rounded rectangular box with a light blue border, intended for writing an answer to the question above.



Nire ustez, zer esan nahi du bakeak?

Four horizontal lines for writing an answer to the question above.



3

GATAZKA DAUKAGU GELAN!



Irakur ezazu arretaz:

Gaur Aitorren urtebetetze-eguna da. Arratsaldean, jai bat egingo du ospatzeko. Gelako kide guztiak gonbidatu ditu jai horretara, Miren, Iker, Andu, Aiora eta Ibai izan ezik. Jai horretara gonbidatuta izan direnetako mutiko batek honela esan die bost horiei: "Hau, onenentzako jai bat da, eta zuek ezin zarete etorri. Horregatik ez dizuete gonbitik egin." Bosteko taldeak...

Antez ezazue egoera hau, eta osatu zuek.






Zein da egunero bizi ditugun gatazkak konpontzeko biderik egokiena?



4

KATUA ETA SAGUA

Hau oso jolas dibertigarria da, baina, begiak itxi eta entzuten duzuen guztia imajinatu behar duzue. Ados?



Zer sentitu duzue, katua sagu bihurtu denean, eta zuek katu bihurtu zaretenean?

Zer ulertu duzue, zuek sagu bihurtu zaretenean, eta katua hurbildu zaizuenen?

5

NORK EGITEN DU GERRA?

Irakur itzazue ondorengo istorioak, eta horrela ezagutuko dituzue gerretan eta gatazketan parte hartzen duten pertsonak.


—Behin batean, atzerritar batzuk iritsi ziren herrira nire auzo Ratkoren bila. Nire aitonak dioenez, pertsona haiek mertzenarioak ziren, ordainduak izan zirenak alegia. Ratkok egunkarietan ez idaztea nahi zuten.

—Herriko mutikoei soldadu izaten irakasten diete. Berdez jantztea gustatzen zaie, tropelean batzea, buruzagi baten ordenak hartzea, gerrara joatea. Askok, dirua irabazi eta familiari laguntzeko egin behar dute hori guztia, goserik izan ez dezaten.

—Orain urte asko, gizonezko batzuk etorri ziren herrira. Soldaduen gisara jantzita zeuden, baina ez ziren soldaduak. Etxeak erre zizkiguten, gizonezko asko hil zituzten, eta emakumezkoak eraman. Paramilitarrak zirela esan ziguten.

—Askotan, gizon eta emakume batzuk etortzen dira gordetzera. Pertsegituak dira, eta guk laguntza ematen diegu. Hala ere, niri beldur handia ematen didate beti aldean dauzkaten armek.

—Aita eta anaia nagusia armada israeldarreko kide dira, eta luze egoten dira etxetik kanpo. Faltan hartzen ditut, baina, etxera itzultzen direnean, beldur apur bat ematen didate: beti daukate arma bat aldean, berdez jantzita dabilta.




Zuen ustez, zer pentsatzen dute horrelako jendea dagoen lekuetan bizi diren pertsonak?

Oso lasai bizi al dira? Zergatik?

Zer iritzi daukazu haur-soldaduei buruz?


Aukera ezazu istoriootako bat, eta marraz ezazu.









6

BALANTZA

Arma guztiak ez dira berdinak. Arma arinak pertsona batek eraman eta gorde ditzakeenak dira. Aldiz, arma astunak pertsona gehiagoren artean eraman, edota, mugitzeko, garraiobideren bat behar izaten dutenak dira



Margo itzatzu arma arinak **BERDEZ**, eta arma astunak **GORRIZ**.



7

MUNDUAN GERRAK DAUDE

Beha ezazue irudi-bilduman daukazuen mapa. Bila ezazue, ondoren agertzen den herri bakoitza. Erreparatu, guk esleitu diogun koloreari.



Herriaren izena	Kolorea	Gatazkaren hasierako eta amaierako data
CHIAPAS	Berdea, oihanaren kolorea baita	1994tik aurrera
SIERRA LEONA	Urrezkoa, diamanteen kolorea baita	1991tik aurrera
LIBERIA	Beltza, Ipar Ameriketara aske jarritako beltzak bizi diren herria baita	1990etik aurrera
ALJERIA	Marroia, basamortuaren kolorea baita	1992tik aurrera
ISRAEL	Horia, eguzkiak indarrez jotzen baitu	1948tik aurrera
ANGOLA	Morea, jakarandaren kolorea baita	1961etik aurrera
EKIALDEKO TIMOR	Urdin turkesa, itsasoaren kolorea baita	1975etik aurrera
BOSNIA - HERZEGOVINA	Gorria, populazioak jasandako oinazeen kolorea adierazten baitu	1992ko apiriletik 1995eko urrira bitartean

Pentsa ezazue, gatazka hauek telebistan eta irratan asko agertu ez arren, oso garrantzitsuak direla. Harrituta al zaudete hainbeste gatazka daudelako?



Erantzun galdera hauei:

Gatazka hauetatik, zeintzuk hasi ziren zuek jaio aurretik?

Gatazka hauetatik, zeintzuk hasi ziren zuek jaio eta gero?

Zenbat urte zeuzkaten zuen gurasoek gatazka hauek hasi zirenean?

Zenbat irauten du gatazka bakoitzak?

8

BIZITZA PRIBATUAK

Irakur itzazu arretaz istorio hauek.



Ni Roberto
naiz!



-Arma batek egindako zauriak min handia sortu zidan, eta oso mantso sendatzen ari nintzen. Nire herriko ospitaleek ez dute baliabide handirik, nire errekupeazioa oso mantsoa da eta oraindik arriskuan nago. Nire familia nirekin bizi da ospitalean, ez baitauekagu etxerik. Zauritu ninduten gizonak etxea erre egin zidaten.



-Hamabi urte dauzkat, eta profesional bat naiz. Balio handikoa naiz armadarako, erraz ezkututzen naiz eta oso lan zailak egiten baititut. Hemen, armadan, ondo nago: jaten ematen didate, lo egiteko lekua daukat, dirua.



-Aita orain bi urte joan zen gerrara. Baina, gerra duela bost hilabete amaitu den arren, ni aitaren zain nago, noiz ikusiko. Haren premian nago.



-Gogoan daukat gure etxea, sabaia eta ormak zeuzkan etxe hura. Herri osoa txikitu zigten. Orain, errefuxiatuentzako eremu batean bizi gara.

9


ROBERTO, ANGOLAKO
MUTIKO BAT

-Roberto naiz, 10 urte dauzkat eta gerran dagoen herri batean bizi naiz, Angolan. Egun batean, gurasoekin landara lanera joan nintzenean, koloretako pilota baten antza zeukan zerbeit ikusi eta jo egin nuen. Baina lehertu egin zen. Gerra hasi zenetik, ez nire gurasoek ez herriko beste inork ezin ditu soroak landu, lurra minaz beteta baitago, eta beldurrez eta gosez bizi gara.

Noizean behin, protesi-zentrora joan beharra daukat, daukadan hanka aldatu eta nagusiago batena jartzeko, zuek betaurrekoak, aginetako burdinak eta arropa aldatzen duzuen bezalaxe...

Zentro horretan, eskola bat ere badago, baina ez daukagu beti joaterik, gurasoei lagundu behar baitiegu jatekoa eta ura bilatzen eta txikienak zainzten. Oso atsegina egiten zait han Igorrekin topo egitea. Igor ni bezalako mutiko bat da, hark niri falta zaidan hanka dauka eta nik hari falta zaiona, beraz, elkarri besarkada ematen diogunean, hanka bi dituen pertsona bakar bat gara!

Zuen ustez, zergatik ezkutatzen dituzte hainbeste kalte egiten duten "pilota" horiek?




Zer izan da Robertoren istorioak daukan alderik harrigarriena?


Horrela zela uste al zenuen?

Justua al da Robertori gertatu zaiona? Zergatik?





Bila ezazu zure argazki bat, eta itsas ezazu ondorengo laukian. Ondoren, azal ezazu zure bizitza, Robertok egin duen bezalaxe.





Zertan dira antzekoak zure bizitza eta Robertorena?

Zertan dira ezberdinak?

Populazioa:

11.185.000 biztanle

Hizkuntza:

portugeses eta bantu familiako hizkuntzak

Hiriburua:

Luanda

Bizi-itxaropena, jaiotzeko orduan:

47 urte

Mediku bat 25.000 biztanleko

Populazioaren erdia baino gehiago analfabetoa da (bereziki, emakumezkoak)

Angola Afrikako herri bat da.

- Angola oso herri aberatsa da: kafea, azukrea eta artoa landatzen da. Oso emankorra dira landare horiek eta ia jasotzen den guztia esportatzen da. Angolak petrolio eta mineral asko dauka, bereziki diamanteak.
- Gure herriko flora eta fauna sinestezina da: elefanteak, krokodiloak, hipopotamoak, erri-nozero zuriak. Bi eskualde desberdin ditu Angolak: bata semidesertikoa, euri eskasekoa, eta bestea, euri ugariakoa, altitude handiko lurraldeetan, non zingirak dauden. Baina ezin dugu beti gure lurralde, lore eta animalietaz gozatzerik, gure herriko lur azpia minaz jositako baitago.






- Antzina, portugaldarren kolonia izan zen, baina 1975ez geroztik, estatu independentea da. Alabaina, gatazka eta gerra luzeak behar izan ziren independentzia lortzeko, agintea hartzea erabaki zaila izan baitzen, baina Angolako herria izan zen gehien sufritu zuena.

- Nola uler daiteke Angola munduko herri pobreenarikoa izatea? Nola izan daiteke Angolak hainbeste baliabide izan arren, bertako populazioa miseria gorrian bizitzea?

- Iparreko herri aberatsek ondorengo hau baino ez dute ikusten Angolan: diamanteak, petrolioak, urrezko meatzeak. Horregatik sartzen dute hainbeste diru industria, produkzioa, eta baliabideak ustiatzeko. Baina, nork jasotzen dituhango etekinak? Populazioak ez behintzat.

- Diamanteen eta petrolioaren salmentatik ateratako diruak hango agintariek dirua eskuratzeko balio du, eta, bertan inbertitu ordez, inori onik egingo ez dioten armak erosteko izan ohi da. Alderantziz, gero eta arma gehiago eduki, handiagoa da gaztazkak sortzeko aukera!






Nork jaso beharko luke Angolako lurretan dauden diamanteen eta aberastasunen etekina?

Zuen iritziz, justua al da munduan baliabiderik handienak dituztenetarikoko herrialde bateko populazioa miserian eta arriskuz beteta bizitzea?

Zer egiten dute herri aberatsek Angolako egoeraren aurrean?


Zure ustez, nola konpondu beharko litzateke herri horretako egoera?



BAKEAREN ALDEKO GARRASI BAT

Bosniako gerran jende guztiak sufritu zuen.
Marrazki hauetan, gerra hura bizi izan zuten neska-mutilak ageri dira.

Barearekin ametsetan, UNICEF/Folio, Madril, 1994



Nataša 11 urte




Zer adierazten du marrazki honek?

Zein sentimendu dakarkizu?

Ipiniozu titulu bat

PAD CERICA



Barearekin ametsetan, UNICEF/Folio, Madril, 1994

Mario, 11 urte




Zer adierazten du marrazki honek?

Zein sentimendu dakarkizu?

Ipiniozu titulu bat

ARMEN ORDEZ, ETORKIZUNA



Sofia: Ba al dakizu gure herrian, armen ordeztan, guretzat oso baliagarriak diren produktuak ekartzeko proiektu bat gauzatzen ari dela?

Roberto: Sofia, zer esan nahi du horrek?

Sofia: Nire herria asko sufritzen ari da, 16 urtez bizi izandako gerra zibilaren ondorio larriengatik.

Gizona: Bai, eta Erromako Bake Akordio Orokorraz bukatu zen 1992an.

Roberto: Bukatu al zen gerra?

Sofia: Bai. Baina bake-prozesuari hasiera eman zitzaion arren, FRELIMO eta RENAMO taldeetako armadak susmo txarrak zeuzkaten, eta honek arazo handiak ekarri zituen; beraz, arma asko gorde ziren leku ezkutue-

tan eta azpibideetan. Bakoitzak bere arma ezkutatu zuen etxean, gerra berriro hasiko ote zen beldur!


INTERMON OXFAMeko Kristau Kontseiluak armen ordeztan, guretzat baliagarriak izango diren produktuak aldatzeko proiektua proposatu du, gure herria birreraiki dezagun.

Gizona: Jakina! Arma bat ez da baliagarria bizirauteko: aldiz, aitzurrak etorkizuna lantzeko balio du!


Roberto: Eta zertan datza proiektu hori?

Sofia: Armak produktu erabilgarrien truke aldatzen dira, adibidez, josteko makinaren truke, zeinen bidez, jantziak egin daitezkeen, eta etxeak eraikitzeko edo lurra lantzeko tresneriaren truke. Berriro hasi nahi dugu.

Antzeztu nahi al duzue Mozambike desarmatzeko proiektu hau?



Konta al dezakezu bertan agertzen den istorioa?



Robertorekin, zera ikasi dut...

Zure ustez, zer egin daiteke munduko neska-mutilak Robertok bizi izandako egoeran bizi ez daitezen?
